

## **ORIXE'ren eskutitzak (V)**

Oiartzabal Jaunari

Orixek Oiartzabal jaunari bialitako azken eskutitzak dituzu emen, irakurle. Osasuna martxoko eguraldia bezela dabilkio, bein eguzki, bein goibel. Eriotza ez du urrutí. Bi urraketa, bi operazio ere egin dizkiote, bata bestearen ondoren. Noizik bein, osasuntsu eta sendo aurkitzen du bere burua, eta argi samar ikusten du etorkizuna; baiña gaitz bat uxatu duela uste duenean, beste bat agertzen zaio, alde bateko edo besteko ajca .

Beste ezbear bat ere gertatu zaio: erriz-erri, etxez etxe ostatu billa ibilli bearra. Orea utzi bearra izan du; ez omen du an, erdia baiño geiago berea duen etxean ostatur jarraitzerik; legeak ez omen zion babesik ematen eta kanpora joan bearko du. Zorionez, bere illoba batek, J. M. Aranalde apaiz meza eman berriak eskeiñiko dio bere etxea Araman. Eta oni jarraitu bearko dio, Arama'ra lenbiziko, eta Ernani-aldera, Zabalegi'ra gero. Illoba au izango du azken-egunen gozagarri, eta gaiñera euskalari on eta ikastuna aterako zaiolako uste ona du. Ain zuzen, eskutizkide duen Oiartzabal apaiza Zabalegitik urbil bizi da, eta andik ara, alkarrekin jarduteko, eskutitzetara jo bearrik ez dute izango. Aoz ao itz egiteko aukera izango dute, elkarrengana bildurik. Bein, orraitio, elkar ikusteari luzeiritzirik, keskaz idatziko dio lagunari, ea gaixorik dagoen ala zerk atzeratu duen lagunaren etorrera.

Orrez gaitzera, betiko gaiak joko ditu eskutitzetan. Batetik, adiskidetasuna erakusteko eskutitzak dira. Orixek ez dio bere buruari bar-katu nai, San Martin egunik igaro bazaio, adiskideari bere zorionak eman eta oioitzak eskeiñi gabe. Eta mingarririk gertatu bazaie, esate-rako Olabideren Bibliarekin gertatua, adiskidearekin ustuko du bere biotzeko samina.

Bestetik, betiko gaia euskal-lanena dute. Bien arteko Gramatikaren goraberak, Bespera-kompletenak, Jainkoaren billa, Orixiren lan nagusia, eta abar. Azkenengo biok argitartzeko Lazkaoko beneditarrak dabilz tartean.

Baina guk gaur beste lan bat aipatu nai genuke emen, Orixek Oartzabal iñoiz aipatu gabea, eta aurtan argitaratu berria: *Aita Benito Gurenaren Erregela*. Lazkaoko prailleentzat euskeratu zuen eta aurtan, Benito santuaren XVgarren mende-urren onetan argitaratua izan dan ezker, ez degu ixillik utzi nai, ezer esan gabe. Opari ederra beneditar euskaldunak beren Aitari eta Europako Zaindari dan Benito doneari egin diotena liburu onekin. Liburu eder mardula benetan, sarrera eta eraskin memitsuz ornitua. Aurretik, Benitoren berri emateko, Aita Begiriztainen euskeraturik, Gregorio Andiaaren Elkar-izketatko liburu bat erantsi diote, eta ondoren, beneditarrek munduan zear eta Euskalerrian izan duten eta gaur duten zabalera aurkestu digute. Eta erdian, 91garren orrialdetik 282garrenera, Benito Santuaren Erregela, Orixeren lana.

Azken-aldean auxe irakurten degu: «Benito Santuaren Erregela au Nikolas Ormaetxea «Orixek» euskeratua da. Lazkaoko Benditarren etxean egin zuen 1955. urtean bertako Aita Nagusi Alberto Begiriztai-nek eskaturik, eta Aita Patxi Aizpurua idazmakina lanetarako lagun zuela, askotan gaixorik ocan egon bearra izaten bait zuen eta oetik egiten itzulpen lana».

Orra itzotan Orixeren azken urtetako irudi bizia, askotan minaren minnez gurutzeari josirik, baina beti Jainkoarentzat eta euskerarentzat etengabeko lanean.

Azkenengo eskutitza, Oartzabal jaunari egiña, 1960ko Azarokoa du. Andik bederatzi bat illabete geroago Jaunak eraman zigun bizion artetik, betiko atsedenera. Oartzabal jauna Bilbora aldatu zan, Begoña-ko Apaiz zar Agurgarrien etxera. Emen ezagutu genduen, 1966n il zan arte. Goian begoz adiskide eta euskal-idazle andi biok.

Oraingo eskutitzon geigarritzat, beste iru eskutitz jartzen ditugu, Orixerena lenengoa, baiña urte asko lenago egiña, 1949koa; beste biak, Zaitegi zanak, EUZKO-GOGOA aldizkariaren zuzendari zanak, Olabideri egin nai zion omenaldirako Oartzabali egiten zion eskaria-rekin. Besteen osagarri, ongi etorriko diralakoan gaude.

Besterik gabe, azkena ematen diogu Orixe zanaren eskutiz-mordo oni. Eta, ain zuzen, asieran aipatu genduen irukotea, Orixe-Zaitegi-Oartzabal, batera ikusten degula.

L. A.

Orexa-tik 1958-VII-3gn.

Oartzabal'dar Martin iaun apaizari.

Adiskide aundi:

Beti erantzuteko eta erantzuteko, ta azkenean berriz atxitu nauzu. Ez, bada, osasunez okerrago nagolako. Ortik etorrita bi illabete kaxkarrak igaro nitun; baiñan arrezko obeki noa, politikxoaz ere. Zango etatik nagi ta eskuetatik baldar, bai; bestela, ordea, ez dute ezagutu nere bizi guzian gaur bezalako osasunik. Margo biziak, urdail ona, biotz ohea, auspoak ere on; baizik ere, mintzoa daukat motel, erlasi edo marrantza banu bezala.

Illabete onen erditik ara Arantzazura deitua naiz, eta egunak noiz izendatuko diridaten nago. Egun bereon egin diot Aita Nagusiari, ta zuri ezin esan noiz emango ditudan nere ikasalditxoak.

Ernai ibilli Lazkau'-rekin. Etxe zakurra da ua. Ni ez naiz ausartzen ioatera, asmoetan banintzan ere. Zaindu ezazu zeure burua.

«El lenguaje vasco» ortan egizu nai duzuna, ta nik ontzat emango. Zertanbait erara ez ba'gago, batak besteari errua erantsi dezaiozun, eta kitto. Nik nere «Jainkoaren billa» bukaturik daukat; aldakiak ateratzen ari zaizkit, bai Lazkau'n, bai Tolosa'ko Sakramentinoetan.

Olabide'rena Andre Marietarako agertzekoa zan, ustez, baiñan irar-kolan atzeratu egin dira. Ala ere, diozuna, Eguberri aldera argitan izango omen. Zer atsegina! Zaitegi ere ari da E. G. banako bereizi

bat A. Olabide zanaren goratzarretan ateratzen. Nere lana lasoa du, lengo astean idatzi zidanez.

Zaude bizkor. Goraintzi lengusueri, eta.

Memento.

NIKOLA

Arama'tik, 1958-IX-19'gn.

Oiartzabal'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra.

Adiskide aundi:

Ematera noazun berritxo batek arrituko zaitu: atzoko egunez bota ninduten etxetik. Etxearen balioa baiño geiago nerea ba'dute ere, nik ez dut agiririk, eta arrebak bere itun-paperetan ez du nere aipurik egiten ni etxera biltzeko edo olakorik. Beraz, legez ni etxetik landa bialtzeko eskubidea dute.

Arama'ko Parroko dan nere illoba Joxe Mari Aranalde'k pozik artu nau bere etxean. «Bazan garaia!, esan zidan; asko pozten naiz. Zuk etzenun iende aien tartean egon bear ere».

Etxe polita du bere baratzarekin. Lenengo gaua lo batean egin det. Illoba onek ba-du grina ikas-lanerako, eta ikasle on bat atera nai nuke onengandik.

Emen nere Completa'k kantatzen ditute igandero, eta datorren igandean entzungo ditut, Jainkoak onez.

Labaien Iauna asia da neretzat diru-biltzeko asmoan, adiskideengandik. Jainkoak ez nau beñere eskutik utzi, ta aurrera ere lagunduko naua iduri zaida.

Osasunez obeki zoazala entzun diot noribaiti. Ala obe!

Gauza au gertatu baiño len, nere illoba onek Aita Ixidor Baztarrika'ri esanik zedukan ekarriaziko nindula. Laister emen dut, Bezperari eta Completeri azken-begiratu bat emateko. Eliz-baimena ukan dute, ta luzaro gabe argitara emango ditute.

Gaurkoz besterik gabe, lengusueri goraintziekin.

Memento.

NIKOLA

Aramatik, 1958'ngo Azaroaren 14'gn.

Oiartzabal'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra.

Adiskide aundi: Oraingoan ez daukat aitzakirik; erdia baiño geiago nagitasunez gelditu nintzan zure egunean bi itz idatzi gabe. Motelaldia ere izan dut, sendagailuak erabat utzi nitulako; baiñan orain obeki nago Jainkoari esker.

Saindu guziak zortziurrena bai omen dute, eta ala bearko. Iakiña, etzindudan aztu egun orretan Jaunaren aurrean. Ilabetez Jenago kezkatzen asia nintzan Azaroa zalakoan eta gero txuri, eguna etorrita ere.

Zu osasunez polikiago zaudela entzun dut. Ala bedi. Orko iloba bat etorri zitzaidan eta goiz ikusi omen zindun Meza ematen.

Santa Teresa egunean Lazkau'ra izan nintzan itzalditxo bat eman; baiña Jengo igandean ez neukan kemenik Aita Mauro'ri atseginiak ematera ipateko. Egun ortan iabetu zan nausigoaz.

Nere azken-liburugaiaren bigarren alderdia kopiatzen ari zaizkit. Berak argitara nai omen lukete Lazkau'koak, edo argitarazi. Argitara dedineko aldi bat izango da. Ez daukat ezer aundirik esatekorik, eta beste bat arte.

Goraintzi lengusueri.

Memento.

(Izenperik gabe)

Arama'tik, 1959-I-24'gn.

Oiartzabal'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra.

Adiskide aundi: Bai poztu nintzala zure azkenekoa irakurtzean! «Segi ortan», Azpeitiarrak aintzintxilarieri esaten dien bezala. Agindu nion zure ilobari telefonoz otoitz egingo nula areago, eta orri izango da ene «Segi ortan».

Ni oso ongi gelditu naiz. Klinikari mirari bat egin didatela iduri zait. Beñere ez dut olako osasunik ukan, Jainkoari esker. Bi egun

osoz ondo aztertu ninduten, eta etzidaten arkitu ezer: ez zuringorik, ez azukrerik; urea ere tamañaz. Beraz, biaramonagoan etzanguran. Bi urreketak batean egin zizkidaten, eta bereala sendatu nintzan. Batez ere urdailletik oso ongi nago. Ezueri au ezin sendatuzkoa. Orain beste Decortin H asmatu dute, ta ontan etsi ezkeru, orain oraindik Jainkoak urte batzuk emango ote dizkidan nago.

Berri bat zabaltzen asi da: «Orixe bizitzera Ernani'ra omen dijo-ala». «Lekuona'k ala esan zion Labaien'i. Zer da guzia? Oraindik ez da seguru, ta esaten iardutea ez da komeni; baiña gure illoba au deitu du Añorga'ko Parroko iaunak, or Lasarte'ko Hipo'en eta Ernani'ren tartean nekazari eskola ipiñi bear dutela landa aundi batean. Landetxe ortara eraman nai dutela. Beraz elkarrengandik bertago giñake. Gauden, beintzat; eta Jainkoak nai duna dedila.

Besterik ezer gabe, goraintzi lengusueri, eta

Memento.

NIKOLA

Arama'tik, 30-III-59.

Oiartzabal'dar Martin Iaunari. Ernani'ra.

Adiskide aundi:

Pazko on lenik eta osasun onak iarrai dezaizula. Zurearen begira nindagon, agindu baitzenidan bestea, Deba'tik etorreran. Onezkero Ernani'n zaitut eta ez nuke berandutu nai geiago. Gaur Tolosa'n bota nai nuke eskutiz au zertifikaturik zure lanarekin. Oso poliki dago. Arramaxka batzuk egin nizkion arkatzez. Ioan-etorririk aundienekoa au da, edo olako ioka-itx bizkorretan dago: «Ark emen ba'ginduzka, guk ere ba'zinduzkakegu». Bigarren *ba* ori nai ta nai-ezkoa da; «izan ere» dana, edo *el hecho*, adierazten baitu.

Baitaratu al zera nola asi diran Aita Villasante, Altube ta Euskaltzaindia gure aurka? *Mi atalaya Montañera*'k oso muskildua eman du nere erantzuna. Arrazoi bizkorrenak bakanduz. Adibidez: «Sendi no es nada, pues ni el vasco lo entiende ni lo emplea ni lo ha empleado jamás». Nere erantzuna: Todos los días lo están usando Radio Segura,

que no hace alarde de purismo. Eta abar. Bialdu dut beste lantxo bat Olabide'ren alde, ta ez diet barkatuko. Emeki, emeki, baiñan arrazoiekin.

Eta Olabide'rekin zer egin digute jesuitek? Dabid'en erezak aldatu, eta; eta, eta. Gauden ixilik.

Ni ondo osasunez, Iainkoari esker. Berriz ere Pazko on, eta goraintzi lengusueri.

Memento.

NIKOLA

Arama'tik, 59-VII-3'gn.

Oiartzabal'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra.

Adiskide aundi: Onezkero Deba'tik etorria zerala-ta zureari erantzutera noa.

Donibane Lohitzun'en amabi egun eginda, erixko etorri nintzan. Orain obeki nago.

Donibane'ra ioan-etorri beren etxeko beribilean egiñerazi didate adiskide batzuk. Orrela ederki ibilli naiz, adiskide zarrekin berriketa batzuk egiñez.

«Olabide bai» deritzon artikulu bat igorri dut EGAN'era. Zer uste ote dute gazte inguma oriek?

Zurekiko auzi ori, naiago nuke gerora igorri. Udazkenerako orrara ioan be'gendi (atzo etxe artan bazkaldua da illoba apaiza), obe lizaidake bertatik bertara, txango labur batzuk egiñez, bultzietan ibilliz baiño.

Tarteko lantxo batzuk ari ditut. KARMEI-era ere igorri nendun artikulu bat, Euskaltzaindiak emaniko arau aren aurka! (Pamili, sendi, eta abar).

Besterik gabe, goraintzi lengusueri, eta

Memento.

NIKOLA

Arama'tik, 1959-XI-9'gn.

Oiarzabal'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra.

Adiskide aundi: Zurea lasoa. Bi illabete ta geiago auetan oia ezin ustuz nago erabat. Oraingo ontan ziatikak gogor io nau, ta ez nau utzi nai.

Etzi Sanmartin, eta au nolabait bialtzeko eta etorriko al da. Iainkoak bete zaitzala bere doai onez, batez ere egun ortan.

Emendik Zabalegi'ra noiz aldatuko geran, ez nik uste bezain laister. Illabete ontan, diotenez. Lekuona iauna (Iuan Mari) Erroma'ra doanetik. Aren orde z bear baitute gure illoba au Apaiz Laguntzaile, aurtengo urte ontan. Datorren urtean Zabalegi'ko Kapillau.

Ez nago *trempu* onean luzeago idazteko, ta barkatu. Oieko txokora berriz ere.

Igato ezazula, bada, egun on bat lengusuen artean, eta ikusi arte.

Nere illoba auek ere goraintzi eta eskumufiak.

Memento.

NIKOLA

Zabalegi'tik, 1960'go Azaroaren 9'gn.

Oiarzabal'dar Martin Apaiz iaunari. Ernani'ra.

Adiskide aundi: Oraintxe bai, esan bearko «aspaldiko». Begira begira egon niza noiz eta zakidan agertuko, esan bezala, bañan etzator nik eta zuk nai bezain laister. Gaixorik al zagoz? Ez dizut opa olakorik; baizik ere, orañi aurrean zeneukan osasuna, beintzat, eta biar S. Martin eguna dan ezkeru, zeruko ta lurreko ondasunez bete zaitzala gure Iainkoak.

Ni oso ongi, esku-zangoetatik ezik. Lanean gogor ati niza.

Ba-dut irxaropide laister etorriko zakidala. Bitartean, eman egun on eta osagarri on, eta lengusueri goraintzi.

Memento.

NIKOLA



Atzean utzia, 1949-koa beste bat.

Donibane Lohitzun'dik, 10-III-49.

Adiskide aundi: Emen nago Belgika'tik noiz deituko nauten, pasaportea ukana baitut.

Atzo erenegunetan Axular'en Gero'ri axial-begiratu bat eman diot, gure nagusi onek emanda. Itokarrean ari izanik ere (zazpi bat orduz), gauza asko auteman ditut gure aditza-lana sendotzen dutenak, eta gero utzi bear, edo besterentzat, obeki esan. Gauzarik politena au arkitu dut: ekidin (equidín), aditz-izen berbera, beste joka-itx batzuekin:

«Okasínoak ere lehen bezala presentatzen eta gerthatzen: gogoa urri, aldatzen errax, eta emazteak ere, behin gerthatuz gero, ez falta ekidin» (372): También las ocasiones se presentan y ocurren como anteriormente: la voluntad es escasa, fácil de tornarse, y mujeres, una vez llegado el caso, tampoco faltan». Ots, emazteak ere, behin (okasioa) gertatuz gero, ez dira falta.

Bost aldiz irakurri (behin ere ez irakurri) egin nun 3'garren argitaldian, Intxauspe jaunak bi lerro jan egiten baititu. Ez ulertu, nonbait. Non ibilli ote dira gure euskalzaleak, batez ere lenengo argitaldia berekin dutenak?

### DADUKA, DADUKAKIO, DIADUKO

Zer ukan ez ezen, *nor* ere ba-dakar Axular'ek:

Dadukaio (119), dadukio

Dadukaionik (113)

diaduko (488-9) amorio baitiaduko

Diadukon (354) aita batek semeari... amorioa

diadukon (384) gizonak emazteari... amorioa

diadukonik (384), daukakionik

ziadukon (487) amorio baitziadukon

Dakidizaio (260, 376, 465, 551) DA-(kid-iza) 10.

dakidizaion (147)

dakidizaiona (1869)

zekidizaion (526) zekidion, zizaion

Lekidizaio (37)

lekidizaiola (265)  
 lekidikedala (388) lizaikedala  
 lekidikeion (453) lekidioken  
 lekidikezu (508) lizaikezu  
 Lizen (461) liren (rhotacismus) = que fuesen  
 lizen (519) behar lizen-liren. Orriald. azken-lerroan.  
 Bazeneza (109) ta ez *bazineza*, gaurko lapurtarrek bezala. Lafitte jaunak nere bertso batean jorraia sartu zun: «Bachenabarre Bidarai'n nuzu-nitaz bazineza galde».

EKIN, ITEN'etan ez genun *nori* dagokionik, Uitzin erabiltzen da, noizaldi guzietan: gerta *diteoke*, *liteoke*, *ziteoken*. Bestela ere ba'diteke: dadioke, ledioke, zedioken. Axular'ek KE gabe erabili oi du *izan'*ekin eta *ekidin'*ekin: etorri dakidizaion = que le pueda venir (147). Dakidizaiona = diteokena (189), lekidizaiola (265). KE'rekin ere bai, lekidikezu = erran diteoke (269). Gatzaitza (329), gatzaijala (117) = gatzaijo, gatzaiola, gakio, gakiola. Azkeneko —za oti *nori* dagokiona da. *Ezan* orde *aidin* maiz derabilla:

dadikegun (166) = dezakegun  
 daidi (198) = dezake  
 daidizuiño (209) eta passim.  
*Edin* eta *ezan* nasten ditu bein edo bein:  
 Neskata eska zedin guzia (258), neskatxak eska zezan ordez.  
*Aidin* eta *ekidin* ere bai:  
 geneidike (25): genkidike.  
 Nintzake (68) gaizki, *nindezake* ordez (ark ni).  
 Gintzake (68) gaizki *gindezake* ordez (lurak gu).  
 Zakitza (153, 156, eta abar): zakitza denborari; probetza zakitza.  
 Aski koloka dabil *ekidin'*ekin eta *ekin'*ekin. Guk ez daukagu nasterik, adijabe —K dutenen eta ez dutenen aditzekin.  
*Gara* etorkizunean edo geroaldian: garate, garateke (271, bi aldiz).  
*Zara* etorkizuean eta geroaldian: dirate, dirateke (273).  
*Dira* etorkizuean eta geroaldian: dirakeien (584), diratekeien (285).  
 Beraz, —TE, —TEKE, —TEKEIE, iru aldetara.  
 Beu = beza (277, 502) Begira beu.  
 Euzu = uzu, eukazu (440, 449, 597).  
 Euzue bakea (213).  
 Balio du astiroago aztertzea. Nai dunak egin beza.  
 Noiz zoaz etxera?

NIKOLA

GEIGARRI: Zaitetik Oiartzabal apaizari.  
Miarritzetik 1958'gko. Urrillaren 30'gnean.

Oiartzabal'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra.

Adiskide eta apaizkide on ori:

Olabide zanaren goratzarrez antolatzen ari naizen banarako zure lantxo eskuetara zitzaidan. Eskarrik asko. Zerbaki mardula ta ederra aterako zaidalakoan nago. Dana irarkolan dago. Alare, idazle batzuen lanak oraindik eztitut iaso. Elduko dira, nik uste.

Bitartean zuk txera onez egiten zenidan eskeintza pozarren artuko nizuke: Olabide zanaren argazkia, alegia. Beraz, bidali ezaidazu, otoi, ta klitxea aterata gero, berriro igorriko nizuke.

Ain zuzen, astebete-edo da, Olabide'ren «Itun Zar eta Berria» eskaratu nuna. Irarkolatik atera zuten bigarren alea bidali zidaten Bilbo'tik: azala laruzkoa, oyalezkoa ta kartoizko, ots, iru muetako idazti ederrak aterako dituzte. Gabonetarako-edo iarri uste dute salgai, lenago ez ba'da.

Nere uste kaxkarrean, bear bezela, zabal eta eda ba'ledi, euskerari indar berria emango lioke, batez ere, apaiz, apaiz-gai, lekaide ta ikasien artean. Egunotan, beraz, Idazteunaren orri artean murgildurik ari nazaizu; badut zer irakurri, badut zer txastatu.

Azkenengo iekia, ots, gure aldizkariaren azkenengo banakoa igorria dizut: bertan, Shakespeare'n Lear Errege, Larrakoetxea'tar Bedita'k, Salta'n dagonak euskeraratua eman dizut: lenago, euskal-idazleak berak euskeraratutako «Macbeth» eman nun: ta emen dauzkat beste bi, «Ekatxa» ta «Juli Kaisar», alegia. «Romeo and Juliette»'ri azkenengo orraztaldia ematen ari omen da, bestalde.

Oraingoz besterik ez. Tori nire euskal-agurrik kartsuena.

Guzion aleginez euskera iraunerazi, edertu ta zabaldu dezagun.

Iesu-baitan agindu euskeraren onerako, adiskide ta apaizkide duzun.

ZAITEGI eta PLAZAOLA'tar JOKI'i

Miarritze'tik 1958'gko Orriflaren 23'gnean:

Oiartzabal'dar Martin agurgarriari. Ernani'ra.

Idazle laztan ori:

Olabide zanaren omenez EUZKO-GOGOIA'ren banako bereizi bat antola nai nizuke, ark euskeratu zitun «Itun Zar-Berriak» argitaraztea dala-ta. Aurten Andremeritan-edo salgai iarriko dute aren itun zarra. Olabide euskal-idazle azkarrak aspaldidanik zukean irabazia onelako goratarre andia, nire ustez. E.G.'ren banako bereizi ortarako lanik igorriko ba'zenida, pozarren artuko nizuke. Or duzu gai-zerrenda, non zer aukera izan dezazun. Lanak bialtzecko epen irailaren azkenean bukatzen da. Otoiz zein gai aukera duzun aditzera emaidazu len-bai-len.

Aldez aurretik eskarrik asko zure lanaren aldera.

Tori nire euskal-agurrik kartsuena.

Guzion aleginez euskera iraunerazi, edertu ta zabaldu dezagun.

Agindu euskeraren oserako adiskide duzun.

ZAITEGI eta PLAZAOLA'tar JOKIN'i.

#### **OLABIDE'ren goratarrez «EUZKO-GOGOIA»ren Banako berezia**

1. \*\*\* Olabide'ren birtzarteko berri.
2. Olabide soñez eta gogoz.
3. \*\*\* Olabide'ren mazmarroa.
4. Olabide euskal-idazle.
5. Olabide ta «Eneko deunaren gogo-ifiarkunak».
6. Olabide ta «Giza-soñia».
7. Olabide ta «Kisto'ren antz-bidea».
8. Olabide'ren aurretiko «Kisto'ren Imitazioak».
9. Olabide ta «Itun Berria».
10. Olabide ta «Itun Zarra».
11. Olabide'ren aurretiko «Itun Zar-Berriak».
12. Olabide ta Euskaltzaindia.

13. Olabide ta Azkue.
14. Olabide ta Eleizalde.
15. Olabide ta Eguzkitza.
16. Olabide ta Altube.
17. Olabide ta «Orixe».
18. Olabide'ren iztegia.
19. Olabide'ren adizkiak.
20. Olabide'ren ioskera.
21. Olabide'ren asmoak etorkizuneko euskerari buruz.
22. Olabide'ren asmoak euskal-itz berriei buruz.
23. Olabide euskaldun berri.
24. \*\*\* Olabide'ren Iesu-lagundiko idazlea ta aurretiko Iesu-lagun euskal-idazleak.
25. Itun Berriko Idaztun ebaten azterketa.
26. Itun Zarreko idaztune baten azterketa.
27. Olabide ta Eleiz-itzaldiak.
28. Olabide'k apaizei ekarritako laguntza
29. Olabide ta Eliz-Ikaskuntza.
30. Olabide ta Arantzazu.
31. Olabide ta gizon ikasiak.
33. Olabide ta euskalariak.
34. Olabide ta Gazteiz.
35. Olabide ta Araba.
37. Olabide ta Gipuzkoa.
38. Olabide ta Nafarroa.
39. Olabide ta Lapurdi.
40. Olabide ta Zuberoa.
41. Olabide ta Euskalerrria.
42. Olabide ta Euskeraren batasuna.
43. Olabide ta euskal-ikaskuntzak.
44. Olabide ta euskal-ikasketak euskeraz.
45. Olabide'ren zenbait ateraldi ta izkirimiri.
46. Idazleak berak bere kabuz asmatu ta ondu lezakena Olabide'ren goratzarrez.

\*\*\* duna aukeratuata dago.

*Azpi oarra.* Agirian dago gai-zerrenda galanta aurkeztu zuela Zaitegi jaunak Aita Olabide zanari Euzko-Gogoa aldizkarian egin nai zion omenaldirako. Amasei izan ziran beren eskupekotxoarekin, bere idazlantxo edo lanroarekin agertu ziranak: Zaitegi bera, Oartzabal, Orixe, Aita Plazido Mugika, Aita Altuna, Lekuona, Altube, Ibargutxi, Formosa'tik Aita Etxeberria, Larrakoetxea (Salta'tik), P. Lafitte, Urrestarazu, Etxaniz Arantzibia (Kerexeta), Etxaniz (Nemesi) Abalegi eta Ibiltari (Aita Etxeberria bera, nonbait). Guztion lanekin ale mardula atera zan Euzko-Gogoa orren 1958'ko azken-zenbakia, 5-6 zenbiki zegokiona, ia 300 orrialdetakoa.

Eta, beste gabe, emen ematen diogu azkena Orixe'k Oiartzabal apaiz jaunari egindako eskutitz-mordo oni.

L. A.

BURNI JORAKO, SUTEGIAN,  
BAI ERABILTZE LUZEAN,  
BAI AZKAR-AZKARREKOAN...  
(Estampados-Forjados delakoan)

REMIGIO ETXEBERRIA

Txonta, 12 — EIBAR